

PLaza

44 ■ Prailleaitz babesteko eskaera

» Legez besteko proposamena bideratuko dute Eusko Legebiltzarrean, premiaz, EAJ ez beste alderdi guztiek.

Jose Luis Otamendi

«Poesia ezaxolakeriari eta kaosari jartzen diogun hesia da»

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Lur bat zure minari-ren ahaidetzat jo daiteke *Erlojuen mekanika*, baina ez luke inola ere haren bikia denik esango Iñigo Aranbarri idazleak, atzo, Otamendiren liburu berriaren aurkezpenaren esan zuenari kasu eginez gero: «Giza harremanak gerra paisaiaren bitartez azaltzen ditu *Lur bat zure minari* liburuak. Gaiak antzekoak izanik ere —ni, zu, gu...—, beste diskurtso mota bat nagusitzen da *Erlojuen mekanika*-n. Aurreko liburuan terminologia militarra zena zibildu egin da». Aranbarriekin ados dago Otamendi. Liburua amaitua zuela, ordenagailuko bilatzailearekin liburuko hitzik erabiltzenak bilatu eta honako hauek agertu zitzaizkion: *jendea*, *mundua* etan. Hiru hitz horiek horrelaxe, huts-hutsik eta elkarren segidan, *Erlojuen mekanika* poema liburuaren «laburpen erradikal» bat izan daitezke, Otamendiren ustez.

Antologiak aparte, seigarren poemaliburu duzu *Erlojuen mekanika*. Hamabi urte dira bosgarrena, *Lur bat zure minari*, argitaratu zenuenetik. Lehen ere urteak emanen zenituen poema libururik argitaratu gabe, baina oraingoan marka denak hautsi dituzu.

Lur bat zure minari argitaratu ondoren ere esan nuen liburu hark ahalegin handia eskatu zidala eta haren ondoren atsedean tarte handi samarra beharko nuela, gauzak nola zetozen ikusteko. Berririo liburu berdina egiteko beldurra izaten dut beti, uste dut poeta guztiok izaten dugula. Gauzak erraz egiteko modu bat eskuratzen duzunean, errazkeria horri aurre egin behar diozu. Ez dut uste haustura erradikalik dagoenik *Lur bat zure minari* eta *Erlojuen mekanika*-ren artean, baina, diskurtsoa erabat aldatu gabe bada ere, gutxienez forma aldetik beste irtenbide batzuk bilatzen saiatu naiz. Horri guztiari erantsi behar zaio nire laneko erritmoa berez dela makala.

Nolakoa izan da liburuaren sortze prozesua?

Nire kasuan lehenengo pausoa me-

Hamabi urte igaro dira Jose Luis Otamendik (Azpeitia, 1959) '*Lur bat zure minari*' (Susa, 1995) argitaratu zuenetik. Adierazpen poetikorako beste modu bat jorratu du orain, «biluziagoa», '*Erlojuen mekanika*' (Susa) poema liburu argitaratu berrian.

taketa izaten da beti: poemak idatzi eta idatzi. Gero hasten naiz begiratzeko ea ba ote dagoen zerbait differentea. Oraingo honetan, neure ez naiz zeharo kontziente izan orain dela gutxi arte idatzita neukan horretan halakorik egon zitekeenik. Errezitaldiek eta han-he-menakako poema solteen argitalpenek oihartzuntxo bat jasotzeko aukera ematen dizute, gertuko ingururitik, eta oihartzun horrek esaten zidan ez nintzela lehengo gauza bera esaten ari. Horrek asko animatu nau neure gauroko egia adieraziko zuten lan bat osatzen, beste adieraz-modu batzuekin, beste kolore batzuk indartuz eta nabarmenduz... Eta duela urte eta erdi inguru hasi nintzen horretan. Segurtasun handirik gabe abiatu nintzen, beti bezala, baina inguruko oihartzunek adoretu naute, eta baita abiatzeko corpus za bala izateak ere, poema kopuru handia, azkenean liburuan 52 baino geratu ez badiara ere.

***Erlojuen mekanika*. Zergatik izenburu hori?**

Denbora jendearen neurriaren ekarzeko ahalegina adierazi nahi izan dut izenburu horrekin. Nire egunerokotasuna zertan den esplikatu

tzen saiatu naiz, poesiaren moduz baliatuta. Eta saiatu naiz adierazten era askotako erlojuak neurtzen dizkigutela egunak: hitzorduak, konpromisoak, ospakizunak, lana, oporrak, poemak... Uste dut mekanika humano bat dagoela horren guztiaren atzean. Bizitzak aldi eta aro bakoitzean denborari modu ezberdin batez begiratzea jartzen gaitu. Batzuetan denbora ehizatu, erlojuetan preso hartu eta eta otzan-otzan gorde dezakegula sinesten dugu, baina gero, denbora eta erlojuak bi gauza direla ohartu orduko joaten zaizkigu laineraz eta txoro-haizeak.

Lauatalditu liburuak, baina ez diozu izenbururik jarri atal bakoitzari. Atal bakoitzean gai jakin bat nagusitu arren, liburuko gai nagusiak, alde edo moldez, atal guztietan agertzen dira.

Atalen banaketa baliatu nahi izan dut irakurleari erritmo bat, sekuentzia batzuk eta balizko gelto-ki batzuk eskaintzeko. Lehen atalean hitza da gako nagusietako bat. Hitza da guri eman zaigun funtsezko ondarea, eta lehen ataleko poemetan zaindu eta gorde beharreko hitzezko errepublika bat eratze gogoa eta irritsa agertzen da, grina hori; jendeak elkar ulertzeko eremu libre eta zabala, abiapuntua gisa. *Ez dira nireak* poema honek amaitzen da: «ahotsak entzuten ditut besteren buruetan». Bigarren atalean, eguneroko gauzek hartu dute indarra, zati intimoa da, nahiz eta jendea ez duan bistatik galtzen. Hirugarren atalean, berriz, parodia nagusitzen da, barre egiten diot geure kolkoiari, kariakura tankerako poema batzuk eskainiz. Azkenekoan, kezka sozialak eta kezka politikoak agertzen dira, zentzu hertsian hartuta poema politikotzat jo daitezkeenak daude. Dena den, horiek ardatz nagusiak dira, eta atal bakoitzean badira beste ataleko kezka

nagusiei erantzuten dieten keinuak.

«Laiotasunaren poeta» zarel dio Koldo Izagirrek XX. mendeko poesia kaierak bildumako zure antologiaren hitzaurrean, zure poesiaren «sinpletasun izugarri zaila» laudatzen du. Beste adieraz-modu batzuk izan arren, idazteko modu pertsonal horri eutsi diozu funtsean.

Laudoriozko hitzak dira horiek, eta ezin ditut egiaztatu. Esan dezakekan bakarra da sinpletasun horren bila jarraitzen dudala. Forma aldetik, uste dut *Lur bat zure minari* baino pixka bat biluziagoa dela *Erlojuen mekanika*. Oro har, nik uste dut aurreko liburuetan baze goela sinpletasunik irudietan eta kontzeptuetan. Baina liburu honetan, koskatxo bat estutu eta komunikazioan ere sinpletasuna bilatzen ahalegindu naiz, egitura errepikatuekin, erritmoa ahozko esateko erara hurbilaziz... Ez dut uste estiloan aurreko lanekiko haustura handirik dagoenik, baina bai syntaxian eta bai lexikoan apalago jokatzen saiatu naiz.

Elementu autobiografiko asko agertzen da, egunerokotasunarekin lotuak horietako asko, eta badago autoparodiako eta autoironiarako joera ere; hirugarren atalean bereziki beharbada, baina liburu osoan oro har.

Beharbada esan daiteke aurreko liburuaren goraki hitz egiten nuela, eta liburu honetan bestela jokatuko dudala, neure eguneroko kezka txikietatik abiatuta. Probatu nuen goratik hitz egiteko fase hori eta oraingoan nahiago izan dut beste ikuspegi bat eman. *Lur bat zure minari*-n gerra edo gutxienez gatazka giro orokor bat zegoen, eta giza harremanak eta beste kontu batzuk giro horren barruan agertzen ziren. *Erlojuen mekanika*-n, aldiz, gerra edo gatazka giroak liburuaren azken laurdena baino ez du hartzen, azken atal horretatik kanpo ere agerpenik baduen arren. Autoparodiaren eta autoironiaren bidez, neure inkongruentziak eta kontraesanak agertzen dira, eta kontraesanen motor hori lagun hartuta ahal duan moduan aurrea egiten saiatzen naiz.

Euri kontuak liburuak (Susa, 1999) aurkearitzat jo daiteke alde horretatik, egunerokotasun autobiografikoaren eta autoparodiaren agerpenaren aldetik?

Beharbada bai. Dena *continuum* bat da azken batean. *Lur bat zure minari*-n ere asko zegoen bizitaketik, baina erreferenteak aditutakoak edo irakurritakoak ziren nagusiki. *Erlojuen mekanika*-n, edo *Er-*

«Liburu berrian, irudietan eta kontzeptuetan ez ezik, komunikazioan ere sinpletasuna bilatu dut»

«Gauzak erraz egiteko modu bat eskuratzen duzunean, errazkeria horri aurre egin behar diozu»

